

# ARTE Y LITERATURA

## Mogel, Agirre ta Galdos, eibartar euskeltzaleak

Eibar'en egiteko dan Euskal Kongresua urreratuaz datorrenez, ondo irixten jaku eibartar euskeltzaliak ezautzera emotia. Euskerak aspalditik izan ditu laguntzaliak eta onen artian eibartarrik pe ezin faltau. Gaur egunian baño euskeltzale geiago lenago ez zan ezautuko Eibar'en. Munduan ziar zabaldua dabizzen eibartarren artian, erri-miñak erainda edo, euskeltzale mordua sortu dira; ta bertan erri barruan be, euskera galduaz doiala ikustiak edo, amaika euskeltzale ta euskal eskribitzalle sortu ditu; errenzimentu baten antzerako indar batek erain da, ta zorionez, geienak gastiak dira. Baintzat, nun nai argitaratzen diran euskal errebistetan azaltzen dira eibartar onen biarrak eta azkenengo urtietan Eibar'en sekula ezautu ezogun gauza baten jabe ein gara: euskerazko eskolena.

Baña, gaur ez goiaz aitatzen bizi diran euskeltzaliak, il ziranak puño. Eta il ziranen artian iru izan dira punta-puntarengiak, Biar bada, geiago be izango ziran baña aren biarrak ez dia eldu ezautzera emen aitatuko ditugun iruren bestian; nunbat ez ziran izango onen bestian sakondu ziranak, bestela euren entzulia eukiko gendua.

Gure mundu onetatik alde eben, entzute aundiko, iru eibartar euskeltzaliak: Mogel abadia, Agirre medikua ta Aita Galdos jesuita, dira. Emen, euren bizitza ta biarren laborpen bat bakarrik emongo dogu.

### JUAN ANTONIO MOGEL URKIZA

Juan Antonio Mogel Urkiza, Eibar'en jaio zan, 1745-XII-6'an, eta Markiña'n il, 1804-V-11'an, Lenago EIBAR errebistan (ikus N.º 4, Julio-Septiembre, 1956, 11'gn. orrialdian) emon genduan bere barri.

Bere aita, markiñarra, medikua zan eta Juan Antonio gatzetxua zala Eibar'tik Deba'ra alde eban ta geruago, andik, berriz Markiña'ra, ta berakin batera gure Juan Antonio be bai. Geruago abade ein zan ta lelengo, 1770'ian Markiña'n egon zan ta gero Markin-Etxebarri'ko parroku, 1775'ian; geruago, 1788'an Xemein'go parroku. Bere azken urtiak Gaytán de Ayala'n etxian (Markiña) pasau zituan eta bertan izan eban eriotzako ordua. Duranatz'ek diñuan ez (tomo I, 273'gn. orrialdean bere «Curiosités» liburu aitatuan) oso pobre il ei zan, bere diruak Frantzia'ko matxinadatik igesik etozen abadiari eta pobrieri laguntzen emon zitualako. Eusebio María Azkue'ek (Resurrección María, Euskaltzaindiko zuzendari ospetsua zanaren aita), Mogel'en ontasunan alde, ara zer diñuan bere «Mogel eta Txaraka» bertsetan: «On bat bear ba'dozu, Santua lakoa... or dajo Mogel jauna, bana-banakoak». Ola-zarrieri laguntzen be gizona izan zan; munduan on eiten pasau zirane-takua dogu Mogel.

Bikaña izan zan Mogel'ek euskeran alde ein eban biarra. Paulo Astarloa duragoarran aiskidia izan zan, baña orduan Astarloa'n izena gorago euala uste ba-zan be, gaur ikusten da Mogel'ek ein ebana askoz be biar obia ta aundiaua izan zala, denporiak Mogel'en alde jokatu dau; baña orduan be Humboldt batentzako ez zan ixilik pasau, bere «Berichtigungen und Zusätze des Mithridates» liburuan esaten eban: «Izkuntzetan Euskal-herria'n danik gizonik jakintsuenetarikua» zala.

Alabe euskeraz eskribitzen, euskeralogorik geienen iritzi, batez be Etxegaray, Azkue, Campión, Urkijo, Lojendio, Arrue ta Etxaide'ren uestez euskaldunok izan dogunik idazle edo eskribitzallerik onenetarikua izan zan. Justo Garate'k eskribidu eban lelengo aldiz bere bizitza «La época de Astarloa y Mo-

guel», Bilbo'n 1936'an, Liburu orretako atal batzuek aztartu ezkeru, olakuak irakortzen dira: «Si hiciéramos una especie de vidas paralelas entre Astarloa y Moguel, éste superaría al primero en el sacerdocio, en el uso escrito de la lengua elogiada —o sea la fe con obras—; eta urrengo: «Por eso hallaréis hoy de nuevo una preferencia por Moguel que va en contra de la popularidad mucho mayor de Pablo Astarloa el romántico». Izan be, durangoarra amets utsa zan, filologia baño semantiku amesleri bat geiago; besterik izan zan Mogel. Mogel, bere neurritik urtetzeka ibilli zan; orretxegaitik ziñuan Farinelli'k «...este sabio vascofílo tan modesto y tan discreto». Humboldt, Her-vás, Vargas Ponce ta abar, orduango filologorik onenak, izan ziran bere lagun. Azkenian nor eta Unamuno, ainbeste euskeltzale zapuztu zituan Unamuno'k be «La Dignidad Humana»n Mogel'en alde jardutzen dau; bada naikua esatia.

Mogel'en biar ugarien artian, onenetarikua: «Konfexio ta komunio sakramentuak», Kristau dotriña, «Ipui onak», «Kristauaren yakin-bideak», «Kantatxoak», «Paskal'en gogapenak» eta abar. Baña guztietatik onena ta geien aitatua «Peru Abarka» da; lau aldiz argitaratu dan liburua, ta beste bein «Beti bato» egunerokuan atalka; orrez gañera erderaz be argitaratu zan, Azkue'k itzulita.

Bere denporako Euskalerriko bizitza erarik geienak bertan jaso zituan ta eskerrak berari dakigu gaur orduko barri; batez be ola-zarren barri; gure gaurko industriari bizitza emon zetsen ola-zarrak. Artiñano'k ain ederto diño bere «Introducción al estudio del trabajo del hierro en España» liburuan; «Las costumbres y vida de una ferrería desde finales del siglo XVI hasta muy entrado el XVIII, fueron descritas cuidadosamente por D. Juan Antonio Moguel en su curiosa obra «Peru Abarka», y hoy gracias a ella, podemos reconstruir toda su complicada trama material y moral, curiosa y llena de misterioso encanto, y al mismo tiempo conservamos el más completo inventario de todo lo que se consideraba necesario a su trabajo y a su vida».

Orregaitik diño Garate'k bere liburuan: «Si me preguntaran: «Cuál cree usted que es el libro vasco cuya traducción es más interesante desde el lado científico?», yo elegiría sin vacilar el PERU ABARKA».

Banan-bana euskeltzale guztiak zerbaite eskeñi dabe gure Mogel'en alde, guztion biotzak irabazi ditualako; zer geiago eskatu leike gizon batengandik: ona, jakituna, biargiña ta bere errian maitale gartsu bat. Eta Mogel burura datorridan bakotxian, bere berba arek, bein eta berriz, esan biarran azaltzen naiz: «Urkatuko litukee askok euren buruak, foruen legerik txikiena galdu ez dedin. Barriz antxinagoti yatorkun euskera, galdu dedilla ordu onean»; ori zan orduko ta gaurko erriaren jokera. Euskera galduaz fueruak galdu ziran, eta euskera galduaz Euskalerrria galduko da; gure erri da galduko dana. Baña zori-tzarrez beranduegi konturatuko gara: kulturaren sartzen garanian. Euskerak eta Euskalerrria burua jasoko ba-dau Mogel geiago biar ditugu.

### VICENTE AGIRRE GISASOLA

Eibar'en jaio zan, 1829-XII-28'an, eta bertan il, 1907-XII-28'an, irurogeta zortzi urte bete zituan egunian bertan. (Ikusi EIBAR, N.º 9, Mayo-Junio, 1957,koa, bertan emon ziran bere barri batzuek).

Eibar'i ainbeste mezede ein zetsan don Ciriacio Agirre medikuan aita. Vicente

bera be ez zan gure erriagaitik gutxi ein dakua, ez zan alperrik egon 50 urtitan Eibar'ko mediku. Bere biarrak aundiñak ijene kontukoak eta nafarrikan kontrakoak izan zira. Bera izan zan osasunan alderako oitura barriak sartzen asi zana: aizia, euzkia ta garbitasuna. Eta naikua burukomin izan ei eban beregain orrek ekarren ontasuna jentiarri aitu erain eziñik. Zarrak diñuan ez, askok adar-jote alde esante ei eben: «Don Vicente'n erreztia: Arrate'ko aizia ta Errotape'ko baña». Etxietan ur-korrierterik ez zan denporatan ez zan premiña makala izango; sinistia be, gure gurasuak ain agosgorrak zirala.

Ijene kontuan Muguruza, Madinabeitia ta bere semia izan ziran bere jarralle leialak.

Bera ei zan eibartarrieri lelengo nafarri bakunak emondakua be. Ederto kosta ei jakon a be orduango jentiarri buruan sartzia. Eta berandu batian konturatu ei zan Eibar'ko erria Vicente'k ein dako mezediekin Baña, gure biarra ezta mediku kontua ta goiazten geure arira.

Bere ordu libriak euskerazko estudiantara eskeñi zituan, ta bere denporako euskalorogorik geienekin izan eban artu-emon, euren artian Luis Luziano Bonaparte euskeltzale jakintsuakin kartaz iskrbitzen zan, eta bere



bitartez eldu zan euskeraren dialektuak ezautzera. Berbo ta joskeretako estudiantak ein zituan ta baita etimolojiakoak pe. Euskeraren muñak ondo sakontzena eldu zanian, errazoz ziñuan: «En Francia, lo mismo que en España, el vascuence es una lengua nacional», —eta urrengo— «Nuestra lengua siempre lógica y siempre sabia»; ain ederto ta egiz esanak. Izan be, euskera pobria dala esaten dabenak, ez-jakin kaiku batzuek dira. Erderia aña estudiantu izan ba-lebe ez eben ez olakorik esango.

Agirre da, zoritzarrez, orduko beste euskeltzale askon moduan, Astarloa'ren irixtietara larregi lotuta euana. Penagarria da esan biarra, baña Astarloa'ri kasurik ein ez ba-letza, bere estudiantuak, biar bada, bide obetik eruango zituan; nik olan uste dok baintzat. Astarloa'k, euskeltzalien artian kalte aundiak ein zituan, euskal filologia ziara nastauta laga eban, eta, gaurko botika-dendekin moduan, lenak bazartu ta barrin-barriz asteke premiñaz azaldu zan; gaurko filologia bide zentzuzkuaguetatik doiala esan leike. Baña, alde batetik, berak Vicente Agirre'k ziñuan letxe: «Las ideas no prosperan si no son discutidas», ta, orraitik, gaurko filolojiak zerbaite zor detsa lenguen biarrieri; gutxienez baintzat, lengo bide okerrak ezira barriz jokatu. Sarr gauzak egiteko kezka bera be azta gutxi,

ta Agirre'ri ori ez jakon falta izan, eta egin ebana apalki-apalki ein eban.

«Tentativas de reconstrucción de nuestro lenguaje natural y el problema de la palabra» izenakin liburu bat argitaratu eban 1898'an, Eibar'ko Pedro Orue'ren inprentan, bere estudio ta teorien gafiian. An ezal-tzen diran biarrik geienak; lenago, José de Guisasaola izenakin, «Euskal-Erriak» errebi-stan (1892-1897'an) argitaratuak izan ziran. Eurretariako biarrik egokienak: «etasun» ta «keri» sufijuen gafiian eskribidutakuak, «Cartas Lingüísticas», «Psicología infantil» eta abar, dira. Bere teoriarik geienak oin bazartuak dira; esan doten moduan, filolo-gia barriak ez zituan ontzat artu.

Unamuno'kin lagun aundia ei zan, ta «don Miguel»ek bere liburuaz ezautu eba-nian, ara zer esan zetsan: «Su libro es a la lingüística actual, lo que la astrología de antaño fué a la astronomía de hoy. Últi-ma de ingenio malamente empleados». Orrai-tiok dana ez zan alperrikakua. Agirre'k sarri esan ebana zan berbia ta pentsamentua al-karri lotuak zirala, animia gorputzari be-zela. Geruago Unamuno berak sarri aítatu izan dau bere filosofiako ensayuetan: pen-tzamenak izketiari zor detsaguzela, berbekin pentsatzen dalako. Ta ori, gure Agirre'k, Unamuno'k zapuztutako liburuan garbi asko esaten eban.

Azkenengo gerratian, Agirretarren etxia erre ez ba-litz, bere liburuengi ederra ta Europa guztiko filologuekin euki zituan artu-emoneko kartak salbauko ziran, baña zorigaiztoz, dana erre zan.

Ezautzen ditugun biar guztiak erderaz dare. Berak pe izan zituan Mogel'en antze-rako ardurak gure euskera zarran alde, bere biarretan sarri esaten dau: «Nuestra nativa pero poco cultivada lengua»; baña penaga-rria izan zan Mogel'en bidiak ez jarraitzea; teoriar gafiak daukagu euskera, baña eus-keraz eskribituzian faltaz. Ta ez berak ondo ez-ekialako, ba, garbi ikusten da ondo do-minatzen ebana.

Julio Cejador, Agirre'n liburuaz esautu ebanian, bere iritxien aurka jarri zan. Baña Cejador'ek bere linguistikako estudioa argi-taratu ebanian, Agirre konturatu zan gauza batzuek beragandik plajiautakuak zirana ta «Euskal-Erriak» (Tomo LV, 280 orrialdia, 1906), «Carta abierta a don Julio Cejador y Franca» ta «Examen crítico» argitaratu zituan eta onek biar biok izango dira labur ta argi bere iritxiak argien emon deskuaze-na, ta baña euskeraren alde gartsuen azal-zendana be. Bertan irakortzen dogu: «El vascuence por su inimitable pureza y por su arcaísmo sin par, es entre las lenguas habladas la que mejor y más fiel refleja el espíritu de aquella lengua primitiva en la cual han tenido su origen todas las demás, sin que nadie pueda negarle esta primacía y prioridad que están al alcance de todo el que conoce un poco su admirable estructura gramatical». Eztozu esango eus-keraz guzti-guztien ama danik, baña bai Agirre ain oker ez-ebillena. Bera ez zan edozein ikuntza kontuetan, erderia ta la-tiña be sakon ezautzen zituan eta ariuen sustraiak be bai. Ta gauzeri beria emon biar ba-jekue baintzat, euskerian eraitzalle bat izan zan eta, gure ikuntza, lordindu baño indartu geiago ein eban.

Gizontasunian ta euskeltzetasunian, ba-dogu ezpillorik naikua, gaurko gizonok, nundik jarraitu biar dogun jakitzeko.

## ROMUALDO GALDOS BAERTEL

Eibar'en jaio zan, 1885-II-7'an, baita il be, 1953-XII-27'an.

Loiola'n eta Oña'n osotu zituan bere eleiz-eskolak. Gizon guztir jakituna izatera eldu zan ta poliglota famatuztat euki eben bere azkenengo urtietan. Ixa bizi guztia Erroma'n eta Oña'n maixu pasau eban. II zanian be Oña'ko retore eula zan. Baña, erritik urrinduaren iñoiz be ez zan aztu bere biotzeko Eibar'ekin. Bere eriotzan J. de Urko'k esan eban bezela: «El Padre Galdós fué en vida un gran eibarrés, un buen gui-

puzcoano y un ardiente propulsor de la cul-tura vasca».

Eibar'en alderako kezak erainda estudio jakingarri batzuek ein zituan, geruago «Contribución a una Monografía Histórica de la Villa de Eibar» izenakin, 1929'an, «Revista Internacional de los Estudios Vas-cos» en argitaratu ebana. Berriz, eriotza aurretuxuan, Eskola Armeriak argitaratu eban Boletín-Especial'ean (1952'ko urtian); beste biartxo bat, Eibar'ko Kontzeju-etxiena, «La Casa Consistorial de Eibar» (Estudio histórico de vulgarización) izenakin.

Sarasua aiskidiari ein zetsan karta baten zifun: «Esku-zabaltasun bako gaztedia, gaz-tedi galdu bat da. Karidade bako kristaua, kristau faltu, ustel eta gaiztua. Eibartarren biotzetatik ez alda sekula galduko anaíta-suna ta umoria».

Euskeltzetasunian barriz zer esanik pe ez, Aita Galdós'ek asko maite eban euskera, ez zan alperrik poliglota; ainbeste idioma ikasita gero nai ta nai ez euskera maite izan biar, ba, geien geienetan, bestienak ezautuz norperana ezautzera eltzen da ta ori berori gertau jakon gure Galdós'i, Amalau idio-man jabe zan eta ala ta justi be ara zer esan zetsan euskertiagatik, kartaz, bere la-gun bati: «Es la lengua más maravillosa que conozco». Ta bere euskeltzale indarra, berak eskribidutako liburuetatik ikusi gein-ke onduen: «Dabid'en Abestiak», «Jesus Aurraren lenengo itzaldias», «Mikel Gari-koits», «Ezkontza», ta abar.



«Jesus Aurtxoaren lenengo itzaldias» li-burutxuak ara zelako eskintza dakarren, Gipuzkoa'ko euskera ederrez idatzita: «Eus-keldun ama, euskeltzaleak eta benien seme-alaba guzti-guztiak artu bezate bai artu begi-enez eta biotz-obeiz, egilleak berak biotz eta gogo-onenez eskeintzen dien euskerazko olerki-txorta au. Au ESKEINTZA au egin nun, Aita Jabier Deun agurgarria, gure euskera maitea ao-biotzetan zerabillela, il zanetik, laurcun-garren urtea bete zan, egun zorientzuan».

Jose Sodupe'ren itzaurria dakar. Galdos eta bere liburuaz jasoaz, onelako berbekin: «Euskera argi ta garbia, asmo goragarriak, eta bertso-berri zoragarriak... Jesus Aur-txoari eta bere Ama Aundiari jarriak; eta obeki esateko, aien bien biotz-barrenetik zu-re biotz-barrenera erakarriak; eta gero andik, gure mendietako iturriño garbien ur garbia bezelaxe, gogo-goxo zure ao-epzane-tara etorriak; irakurleen adimenak poztu-tzeko, ta pozaren pozez, adimenak argi-tuaz, biotzak garbitzeko, ontzeko eta indar-zeko...». Ori zan izan ba Aita Galdós'en gogo garbia.

Odolez eibartarra izanekero, nai ta nai ez, umoria berakin izan biar, umoria ta ziriak sartzeko biurrikeria. Esaten dabe, Euskeltzaindiko buru zan Azkue Erromara juan zanian, estakit zelako funziñuak zira-lata, kanonigotik berakorik ez ei eben la-

gatzen Capilla Sixtina'ra sartzen, eta Azkue zana penaz ei zan Capilla Sixtina ikusi barik itsuli biarrez; baña, atan-orretan, ara nun tope ein eban gure Galdós'ekin eta zer pasatzen jakon kontau. Gure errikidia ja-kiñaren gafiian ipiñi zanian azkar jaso ei zituan anak. Sartu ei zan ate batetik eta andik lasterrera an azaldu ei zan eskuetan kanoniguaren soñekuak zituala, ta, eskerrak berari, Azkue jaunak kanonigu jantzita iku-si ei eban Capilla Sixtina. Anaian ezpalekua izan biar gure Erromaldo.

Emen dozue laburki Aita Galdos nor zan eta euskera zenbat maite eban. Bere azke-nenguetako esera bat zan: «Amalau ikun-tza ditut eta bat biotzean: EUSKERA».

Iru euskeltzale, iru biargin ta iru gizon, batez be iru gizon; ziran guztia munduan ta Euskalerrian alde emon ebena. Eztoz nai emen euskerian illetak jotetik, ez; euskera biziko da onek irurok jarraitzailiak dituen artian. Baña, irakorle: Zeuk zer eiten dozu euskerian alde? Euskalduneri euskeraz eingo ba-zendu be ezta gutxi. Euskaldun ba-kotzak eskatu kontuak bere kontzientziari, eta eibartarrok begiratu noizik peñean Mogel, Agirre ta Galdos, ainbeste alegindu di-ran bidieri, eibartar zintzua izaten jarraitu nai ba-dozue, baintzat.

Juan San Martín'ek

## Euskal bertsolarien jotortaruna

(Viene de la pág. 12).

orregaitik dago igartuta  
Gernika'ko arbola zarra.

Txirritia'k bertsu ori minutu bat bañ le-tago erantzen eban. Ez alfa da arri-ko-koa? Bañ, ori be ezta guzta. Berte batian, ada-rra jote alde, puntau eistu-en amaitzen zala ipiñi ei zetsen; euskeraz ez zala errela ber-barik amaitzen ta gure Txirritia jotorra ur-tera barik geldituko zalakuan, baña adar-jotalliak ez-ekien asko norekin zebizen. Au izan zan asiera:

Naiago nuke ba-neuks  
zuk dezun ainbat bist.

Ta Txirritia'n

erantzuna: Etxean ba-det txakur bat  
deitzen zaiiona List,  
atiaren gafietik  
egin ondoren pist,  
azpiko zulotikan  
azkar sartzen da txist.

Onomatopoykoekin ez-pazan be, bizkor billau eban Txirritia'k bertsuaz betetzeko bidia.

Zirikada zelebriekin sartu garanez, ezin dogu amaitu Uztapide'n ateraldi bat aítatu barik. Uztapide'ri be, juraukuak bein, pen-tsau ei eben olako estuasuntxo hat emotia ta ara, ustez, urtera bakua zan galdera bat nola egin zetsen:

Trenak zenbat errubera  
ditu?

Uztapide'k: Jakin nai dabena's  
azpira begitu,  
ipinitako guztiak  
izango ditu.

Onek, naikua agiri dira bertsolarien ar-gitasuna ikusteko, Gañera, aintzakotzat ar-tzekua da bertsolariak zenbat ein daben eus-keraren alde. Bertsolariak nun nai aitzen dira, erririk-erri euren izketa zabaldua da-billelako, ta Gipuzkoa dabez bertsolarien abia, beste nun naiko bertsolariak pe, ber-tsoñian atera diranian, Gipuzkoa'n egiten dan euskerara jotzen dabe; azkenengo Bil-bo'n ein zan Bizka'ko Txapelketan be ori konturutzen giñan.

Bene-benetan txalogarriak dia gure ber-tsolari jotorrak.

J. S. M.